



## TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO

# hitza



Osteguna  
2010-03-25

VIII. URTEA 1961. ZENBAKIA  
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO



Galdeketa emaitzak aurkeztu dituzte Amartzeko Auzetxean. A. IMAZ


## NOLAKO AMAROTZ NAHI DUTEN BADAHITE AUZOTARREK

**TOLOSA** Galdeketa emaitzek Auzo Elkartearen lana babestu dute; 'Parte Hartuz'eko kideak «harrituta» gelditu dira erantzunarekin »

**RAFA RUEDA** MUSIKARIA

«Zuzenekoetan azken diskoko kantez gain berriak ere jotzen ditut»

**TOLOSA** Bihar, 22:30ean, Bonberenean eskainiko du kontzertua Mungiako abeslariak »



MONIKA DEL VALLE/ARGAZKI PRESS

## Ordu aldaketa kontuan hartzeko eskatu diete partaideei

**VILLABONA** Aizkardiren 42. Ibilaldi Neurtuan 1.000 mendizaletik gora irtengo dira igandean »

**MIGEL MARI ELOSEGI 'LUZE'**  
BERTSOLARIA

«Nafarroan zabaldu egin da bertsoaren eremua»

**LEITZA** Nafarroako Bertsolari Txapelketaren inguruan hitz egin du 'Luze'k 7



BERTSOZALE ELKARTEA

**Azken ostiraletako elkarretaratzeak egingo dituzte eskualdeetan**

**POLITIKA** Leaburu-Txaraman bihar bilduko dira 20:15ean, Txaramako plazan. 4

**Sahararen aldeko biharko pilota jaialdian izar handiak elkartuko dira**

**TOLOSA** Elkartasun ekimena 19:00etan hasiko da Beotibar pilotalekuan 3

### Martxoaren 27an denok kalera!

Erreformen aurrean langileok eredu berri bat gizarte eta lan-eskubideen murrizketa gehiagorik ez

Manifestazioa - Donostia, Boulevard 17:30

**ELA-LAB-ESK-STEE/EILAS-EHNE-HIRU**



Bonbardaketa eta Picassoren 'Gernika' margolanen oinarrituriko lana da. ANDONI TEBAR

## Gernikako bonbardaketa dantzaren bidez irudikatuta, bihar, Leidor aretoan

**Tolosa** » Aukeran dantza taldeak 'Gernika, mihise gaineko dantza' emanaldia aurkeztuko du; 20:30etik aurrera izango da.

### » DATUAK

- **Ikuskizuna.** Gernika, mihise gaineko dantza.
- **Egilea.** Aukeran dantza taldea.
- **Zuzendaria.** Edu Muruamendiaraz.
- **Gidoia.** Jose Antonio Vitoria.
- **Musika originala.** Aitor Amezaga.
- **Eszena zuzendaria.** Garbi Losada.
- **Dantzariak.** Gotzon Poza, lurre Aranburu, Ander Errasti, Onintza Odriozola, loritz Galarraga, Maitane Mujika, Ekain Kazabon, Nahikari Galarraga, Aiert Beobide, Ane Anza eta Garazi Lekuona.
- **Noiz eta non.** Bihar, 20:30ean, Leidor aretoan.
- **Sarrerak.** 12 euro. Leidorren (bihar saioa hasi aurretik), Servikutxa, Telekutxa edota [www.kutxa.net-en](http://www.kutxa.net-en).

### ERREDAKZIOA

Gernikako bonbardaketa eta bere ondorioak izango dira hizpide bihar, Leidor aretoan. Baina, ez film batean edota hitzaldia batean, baizik eta, dantzaren bidez, Aukeran dantza taldeak *Gernika, mihise gaineko dantza* ikuskizuna eskainiko baitu.

1937ko apirilaren 26an gertaturikoaren kontakizuneari eta Picassoren *Gernika* margolanaren oinarrituriko emanaldia da, pluraleko lehen pertsona kontaktua, bonbardaketa jasan zutenek, alegia. Bonbardaketa hildakoak heriotzatik itzultzen dira, zer gertatu zen kontatzeko. Hondamendia-

ren aurretik nolako bizitza zuten kontatuko dute, nola erori zen gerraren infernua herriaren gainera, nola birrindu zuen, eta nola, oroi-menaren bitartez, jaio daitekeen berriz.

Edu Muruamendiaraz da lanaren zuzendaria. «Gernikan gertatutakoa gehienek ezagutzen dute, eta, horregatik, ezohiko kontaketa bat egin nahi izan dugu emanaldi honekin», azaltzen du. Aukeran dantza taldeak «bereko estiloa» lortu zuen euskal dantza tradizionala eta garaikidea nahastu zituen. *Gernika*-rekin, ordea, jauzi berri bat ematea erabaki dute. «Betidanik erritmo handiko dantza joratu dugu. Oraingoan koreografia lasaigoak eta modernoagoak sortu ditugu». Estetika aldetik, minimalismora jo dutela dio Muruamendiarazek. «Jantzi zuri eta beltzak erabili ditugu, istorioak hala eskatzen zuelako. Gerora, argiztapenarekin jokatu dugu, pasarteen arabera, beste kolore batzuk lortzeko».

Muruamendiarazentzat «oso gogorra» izan da dantzari rola albo batera utzi, eta bera bakarrik zuzendaritzaz arduratzea. «Hartutako erabakia beharrezkoa zen, eta oso garrantzitsua izan da niretzat». Argitu duenez, dantza «beste ikuspuntu batetik» lantzea zen bere asmoa. «Koreografia bat ez da berdin ikusten barrutik edo kanpotik».

*Sutargi, Izena duen guztia omen da eta Bideak* lanaren ondotik laugarren ikuskizuna du *Gernika* Aukeran dantza konpainiak.



Tolosara Ligako bandera ekartzeko aukera handia dute. HITZA

## Asteburu erabakiorra Tolosaldeko Arraun Klubekoentzat

**Kirola** » Etzi Orion eta igandean Donostian izango dituzte estropadak; neskek dute garaipena eskuratzeko aukera gehien.

### ERREDAKZIOA

Asteburu honetan amaituko da Batelen Gipuzkoako Liga, eta Tolosaldeko Arraun Klubeko taldeentzat erabakiorra izango da goiko postuetan bukatu ahal izateko. Orion izango da estropada, etzi, eta igandean izango da azken jardunaldia, Donostiako Kontxan.

TAKeko neskek, bai etorkizunekoek, bai eta nagusien mailakoek ere Ligako bandera Tolosara ekartzeko aukera handiak dituzte. Horretarako, infantil-kadete neskek Ibaika garaitu beharko dute

geratzen diren bi probetan; nagusien kasuan, berriz, lehenengo postuan daude une honetan, baina soilik puntu batera dute Zumaia, beraz, azken bi probetan orain arteko maila erakutsiz jarraitu beharko dute, lehen postuan amaitu nahi badute.

Bestalde, infantil eta kadete mutilek maila oso ona eman ez duten arren, hobekuntza nabaritu da azken estropadetan; jubenilen kasuan, sailkapeneko hirugarren postua lortzeko aukera dute, beraz, horretan saiatuko dira asteburu bi probetan.

Asteburu honetan erabakiko da, beraz, TAKekoak zenbat garaipenekin amaitzen duten aurtengo Liga. Klubetik zaleak gonbidatzen dituzte bai etzi eta baita igandean ere arraunlariak animatzera gerturatu daitezten.

## Laburrak

### Barreterapiari buruzko ikastaroaren aurkezpena

**TOLOSA** » Tolosako Barrearen Eskolak antolatuta, Monitore, Barreterapia Terapeuta eta Garapen Pertsonalaren formazio ikastaroaren aurkezpena izango da, gaur Kultur Etxean, 19:00etatik 21:00etara. *Umorea eta barrea bizitzaren egunerokotasunean* gaia landuko dute. Doan izango da.

### Asis Sarearen hileroko otoitzaldia, gaur

**TOLOSA** » Asis Sarearen otoitzaldia bilkura egingo dute Tolosako Klarisen komentuan, gaur, 19:30ean. Dagoeneko 1.750 lagun baino gehiago biltzen dituen sarearen helburua irekitzea da, eta herrietara, taldeengana eta pertsonengana zabaltzea. Informazio gehiagorako 646 21 48 96 zenbakira dei daiteke, [asisarea@arantzakuz.org](mailto:asisarea@arantzakuz.org) helbidera idatzi edo [www.asisarea.org](http://www.asisarea.org) webgunera sartu.

### Artisau, ganadu eta barazki azoka prestatzeko bilera

**LEABURU** » Bigarren artisau, ganadu eta barazkien azoka prestatzeko bilera egingo dute gaur, 20:30ean gazte gelan. Azoka urriaren 10ean egingo dute. Pasa den urtean egin zuten lehen aldiz eta izan zuten arrakasta ikusita errepikatzea erabaki dute. Herritar guztiak animatzen dituzte parte hartzera.

### 'Up in the air' filma 'En tierra hostil'-en ordez

**TOLOSA** » Asteburu honetarako *En tierra hostil* filma aurrekusi bazuten ere, ezin izango dute eman «Oscar sari nagusia irabazi ondoren filmaren banatzaileak otsailetik agindutako konpromisua bete ezin duelako». Bere ordez, *Up in the air* filma izango da ikusgai. Martxo zine bonua eskuratu dutenek apirillean *En tierra hostil* filma ikusi ahal izango dute. Apirilaren 25ean emango dute.



**EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

# Auzo Elkartearen lana eta parte hartze prozesuak babestu dituzte

**Gizartea** » Amaratzen urtarrilean burutu zuten kontsultarekin «harrituta» agertu dira 'Parte Hartuz' ikertaldekoak.

## ASIER IMAZ

Amarotzeko paper fabrika zegoen lekuan etxebizitzak egiteko asmoa dauka Tolosako Udalak. Ondorioz, biztanle kopurua nabarmen igoko litzateke Amaratzen eta honek behar berriak sortuko litzuke, lehenez gain. Baina zeintzuk dira behar horiek? Nolako Amaratzen nahi dute herritarrek?

Galdera hauetaz erantzuna emateko, Auzo Elkarteak, Udalaren eta Parte Hartuz ikertaldearen laguntzarekin, kontsulta bat antolatu zuen urtarrilean. Bi egunetan zehar, 525 idatzizko ekarpen bildu zituzten. Ondo sailkatu eta antolatu ondoren, kontsultaren emaitzak plazaratzeko garaia iritsi da.

## 'Parte Hartuz' harrituta

Amarotz-ko Auzoetxean kontsultaren emaitzak plazaratu dituzte azken bi egun hauetan, herenegun eta atzo. Parte Hartuz ikertaldeko bi kide aritu dira lan horretan eta prozesuarekin «harrituta» daudela onartu zuten: «Jendearen erantzuna oso ona izan da. 525 idatzizko ekarpen oso emaitza ona da, ez



Urtarrilean burutu zen galdeketa, argazkien bidez auzoko historia ikusteko aukera eduki zuten. NOELIA LATABURU

baita erraza izaten jendea puntu batera eramán eta ondoren gainera, zerbait idatziz dezan lortzea. Harrituta eta benetan gustura gauden.

Parte hartzearekin kezka agertu zutenak, herenegun, Auzo Elkartearen kide batzuk izan ziren. Kontsultaren emaitzak entzuteran nahi baino jende gutxiago hurbildu baitzitzaien. Hala eta guztiz ere, Auzoetxean 30 lagun inguru elkartu ziren. Horien artean Olatz Peon aurkitzen zen, Tolosako Udaleko

Obra, Zerbitzu eta Auzoetako zinegotzia.

Urtarrilean burutu zen kontsultaren emaitzak aurkezterako orduan, egun haietan erabili zuten sistema gogoratzeaz gain, bigaldera zehatz ekarri zituzten gogora ikerleek. «Bi partaidetza gune ireki genituen: lehendabizikoan, auzoko 4 plano handi jarri ziren gai desberdinekin. Jendeak plano bakoitzaren gainean bere proposamenak, kekek, eta abar jarri behar zituen. Bigarren gunean bi panel

jarri ziren, zer nolako herri ereduak nahi duten azaltzeko.

Gainera, bi galdera egiten genizkion jendeari: bata, Auzo Elkarteari buruzkoa; eta bestea, proiektu publikoetan herritarren partaidetza bultzatzearen ingurukoa. Lehendabizikoari dagokionez, jendeak babes handia eskaini zion Auzo Elkarteari; bigarren galdera, berriz, proiektu publikoetan herritarren parte hartzea bultzatzeko planteamenduak erabateko babesa lortu zuten».

## » DATUAK

### 525 ekarpen

- 442. Auzoaren inguruan.
- 83. Herriaren inguruan.

### Galdeketa emaitzak

■ Auzoarekin lotura duten proiektu garrantzitsu guztiak parte hartze prozesu batekin joan behar al dira?

Bai (169)/Ez (0).

■ Auzo Elkarteak auzo interesak ordezkatzen dituela uste al duzu?

Bai (157)/Ez (7).

### Ekarpen nagusiak

■ Gune berdeak.

- Daudenak hobetu eta mantendu (5).  
- Berriak sortu; parkeak, bankuak... (4).

■ Etxebizitzak.

- Gazteentzat eta baliabide urriko pertsonentzat alokairuzko etxebizitzak (12).

■ Zerbitzu eta ekipamenduak.

- Doako aparkalekuak edo merkeagoak. Auzotarrentzat bizilagun txartela (9).

■ Aisialdirako eta kulturarako ekipamenduak.

- Balio anitzeko Kultur Etxe baten sorrera edo egokitzea (45).

- Aisialdirako guneen sorrera edo egokitzea (33).

■ Osan komertzioa bultzatzea (9).

■ Hezkuntzarako ekipamenduak.

- Haurtzaindegia sortzea (15).

■ Osasun-ekipamenduak (46).

- Osasun-zentroa hobetzea eta handitzea (44). Honen barruan, pediatria zerbitzua ere ezartzea (37).

- Haurtzaindegia sortzea (15).

■ Garbiketa eta hondakinak.

- Zur azpiko kontenedoreak ezartzea (23).

- Auzoko iturria garbitzea eta mantentzea (8).

- Gune berdeak garbitu eta mantentzea (15).

■ Trafikoa eta komunikazioak

- Tolosarekiko lotura hobetzea: bigarrena, argiztapen egokia (14).

- Espalioen konponketa (13).

- Zur azpiko aparkamenduak erakitzea (16).

- Zur gainekoak ugaritzea (14).

- Zerbitzu publikoaren ordutegia zabaltea, gauetan eta asteburuetan bereziki (11).

# Sahararen aldeko pilota jaialdia bihar 19:00etan hasiko da

**Elkartasuna** » Hilaren 28an, helburu bera edukiko duen Bertso jaialdia antolatu dute Beotibarren. 18:00etan hasiko da.

## ERREDAKZIOA

Sahararen aldeko bi ekimen hartuko ditu Tolosako Beotibar pilotalekuak ondorengo egunetan. Batek, Bertsolarietza Txapelketa Nagusiko finalean izan ziren bertsolari gehienek parte hartuko duten bertso jaialdia izango da igandean, hilaren 28an, eta bestetik, pertsonaia ezagunak ariko diren pilota jaialdi berezi batean. Azken ekimen hau bihar, hilaren 26an, izango da 19:00etatik aurrera. Sarrera 5 euroan jarri dute eta ondorengo pilotariak irtingo dira kantxara. Lehenik frontenisean ariko dira Joxepa Usabiaga eta Nagore Arozana, Ikerne Galarza eta Ainhoa Montesén aurka. Ondoren Garikoitz Mendizabal txistulariak



Sahararen aldeko pilota jaialdia ospatuko da bihar 19:00etan. A. IMAZ

eta Patxi Zeberioak Unanue-Ezkuraren aurka jokatu dute paleta goman.

Bertso jaialdia ere leku berean izango da, hori bai, igandean 18:00etatik aurrera. Aldez aurretik sarrerak erosteko aukera dago 10

euoren truke, edota egunean bertan bestela, 12 euroan. Helburu bera izango dute bi ekitaldiek, Sahararen alde dirua biltzea, Tolosaldea Sahararekin elkarrekin bultzatzen ari den hezkuntza proiekturako, hain zuzen.



Auzotarrak ekarpenak egiten. N.L.

Tolosaldeko eta Leitzaldeko komunikabide batek  
**Kazetaritza edota Euskal Filologian lizentziatuak**  
edo ikasleak behar ditu  
**lan poltsa osatzeko.**

Interesatuak deitu **687 41 00 32** telefono zenbakira edo bidali curriculum-a [tolosaldean@tolosaldekohitza.info](mailto:tolosaldean@tolosaldekohitza.info) helbidera

## Hodei Truk abesbatzako gazteak finalera iristeko zorian

**Tolosa** » ETBko 'O happy day!' saioko hamargarren kanporaketan jakingo da finalera zein talde iritsiko diren.

### ERREDAKZIOA

*O happy day!* ETBko abesbatzen lehiaketaren txanpara iristen ari da.

Etzi, larunbata, hamargarren saioa emitituko dute eta Tolosako Hodei Trukeko gazteek *Rum de Cocacola* abestia eskainiko dute. Abestia Andrew sisters-ek egin zuen ezagun 40. hamarkadan AEBko eta Karibeko Trinidad uhartearen erritmoak jasotzen ditu. Andrew sisters-en paperean Marta Olea, Elixabet San Sebastian eta Miren Garikano ariko direla argitu dute.

### Gala bat eta finalera

Abesbatzako arduradunek argitu dutenez, gala bakar bat besterik ez da falta finalera iristeko.

Hodei Truk une honetan Durangokoekin batera arriskuan dago eta datorren saioan bietako bat kaleratua izango da. Orain arte Donibane Lohizune, Donostia eta Orioko taldeak izan dira kalera-ituak.



'Rum de Cocacola' abestuko dute larunbatean Hodei Trukeko gazteak. HITZA

Talde tolosarrak «lan bikaina» egin du orain arte eta «iritzi guztiek behin eta berriro gorai patzen dute euren freskotasuna, inplikazioa, originaltasuna eta, noski, musikaltasuna», argitu dute. Galdu ezin den hurrengo saioa larunbat honetan izango da gaueko 22:10ean ETBn.

Saioren bat galdu dutenek [www.youtube.com](http://www.youtube.com)-en aurkituko dute orain arte emititu dituztenak. «Oso erraza da: bilatu Hodei Truk eta listo», argitu dute.

## Elkarretaratzeak azken ostirala dela eta

### ERREDAKZIOA

Bihar izango da hileko azken ostirala eta ondorioz, beti bezala eskal presoaren eta euren familien egoera salatzeko eta Euskal Herrira gerturatzeko eskatzeko elkarretaratzeak izango dira bi eskualdetako hainbat herritan Amnistiaren Aldeko Mugimenduak deituta.

Era berean, gogoratu behar da, eskal presoak urtarrean hasitako borrokaldiarekin jarraitzen dutela.

Zentzu honetan, Leaburu-Txaramako ezker abertzaleak «gaixo dauden presoak zein kondena beteta dutenak askatzea, gainontzeko eskal preso guztiak euren eskubide guztiekin Euskal Herriko espetxeetara ekartzea eta 5 hilabete hauetan espetxe politika zikin horrek eragin duen senideen aurkako katxeo eta umilazio saiakerak ehunka aurrez aurreko bisita bertan behera utzi dituztela» salatzeko unea dela argitu du.

### Irainak bisitetan

«Gainera bisiten sarreran adin txikiko umeak ukitu dituzte, neska gazteei bularrak ukitu dizkie, elbarritasun fisiko eta mentala duen pertsona bat biluzarazten saiatu dira, preso baten aita atxilotu dute, senideek sei eta hiru hilabetezko zigorak pairatu dituzte, beraien se-

nideak bisitatzeko aukera kenduaz», nabarmendu du. «Errepresioaren eta gerra zikinaren ondorioz Jon Antza eraila izan dela» ere salatuko dute elkarretaratzean.

«Apirilaren 18an desagertu eta apirilaren 29an aurkitu omen zuten, eta non egon zen bitartean, guardia zibilak ohe azpian pistolak ahaztutako hotelean? Zergatik ukatzen zaio familiako medikuari autopsian egoteko eskubidea? 11 hilabete behar al ziren gorputza identifikatzeko? Non da isilpean dagoen historia klinikoa?» galdetu du Leaburu-Txaramako ezker abertzaleak.

### » MOBILIZAZIOAK

#### Azken ostiraleko elkarretaratzeak

- **Aduna.** 20:00etan.
- **Alegia.** 19:30ean.
- **Amezketak.** 19:30ean.
- **Anoeta.** 19:30ean.
- **Asteasu.** 20:00etan.
- **Ibarra.** 19:30ean.
- **Ikaztegieta.** 20:30ean.
- **Lizartza.** 20:00etan.
- **Orendain.** 20:00etan.
- **Tolosa.** 19:30ean.
- **Villabona.** 20:00etan.
- **Zizurkil.** 20:00etan.
- **Leaburu-Txarama.** 20:15ean Txaramako plazan.



## harpidedun izateak badu saria

### ① Erromeria

**Udaberri** dantza taldearen Erromeriaren baitan, **afarirako ticket pare bat**


Martxoak 27 larunbata  
Tolosako zerkausian



### ② Bertso saioa

**Tolosaldea Sahararekin** elkarteak antolatua  
**4 sarrera pare**

Martxoak 28 igandea  
Tolosako Beotibar pilotalekuan



### ③ Sarrerak

**Mokoloren omenez** ospatuko den jaialdirako **sarrera pare bat**

Apirilak 17 Larunbata  
12:00etatik aurrera  
Tolosako Leidorren



### ④ Sarrerak

**KEN 7** taldeak eskeiniko duen kontzerturako **2 sarrera pare**

Apirilak 23 ostirala  
20:30etatik aurrera  
Tolosako Leidorren



Parte hartzeko deitu edo idatzi: **902-82 02 40 / txokoa@hitza.info** [harpidedunen kodea, izena, herria, eta zein eskaintzetan parte hartu nahi duzun garbi adierariz] Aste honetako astearte, asteazken eta ostegunetan, 09:00etatik 17:00etara. Saridunak larunbatean argitaratuko ditugu.

harpidedunen  
**TXOKOA hitza**

# 1.000 parte hartzailetik gora izango dira Aizkardiren 42. Ibilaldi neurtuan

**Villabona** » Ordu aldaketarekin batera, 1.000 mendizaletik gora pasako dira Aizkardiren ibilbide neurtuan.

## ENERITZ MAIZ

Aizkardi Mendi Taldeak antolatzen duen mendi ibilaldiaren eguna iristear dago. Ordu aldaketarekin batera, igande honetan, Villabona-Amasan 42. Ibilaldi Neurtua izango da. 1.000 mendizale inguruk eman dute izena dagoeneko eta bi aukera dituzte, luzea ala motza. Izena emateko epea aspalditik zabalik dago eta internet bidez egiteko azken eguna biharkoa izango da. Antolatzaileek, alde zuretik ematea komeni dela badiote ere, egunean bertan apuntatzeko aukera egongo da. Dagoeneko, ibilaldi luzea egiteko 653 lagunek eman dute izena eta motzean 327 apuntatu dira.

Ibilbide luzea, 14 urtetik gorakotzat da eta 42 kilometro egin behar dira, 2.250 metroko desnibelarekin. Irteera 07:00etan izango da eta ibilbideak Villabona, Otieta, Lapurtxulo, Onddo, Azketa, Leuneta- Abadekurutz, Mandoegi-Kondizatzeko lepoa-Leitzaran, Gorosmendi, Mugaga, Urdelar, Belabieta, Komizar zeharkatu ostean, berriz ere, Villabona bukatuko da. Gutxi gorabehera, bederatzigarren orduan daitekeela uste dute antolatzaileek.

Ibilbide motzaren kasuan 24 kilometro eta 1.150 metroko desnibela izango ditu. Irteera ordua, 08:00etan izango da eta ibilbidea Villabona, Otieta, Lapurtxulo, Astabizkar, Amasola, Praxku, Kanal Handia, Lastur eta Villabona izango da. Kasu honetan, bost orduetan bukatzeko moduko ibilbidea dela diote antolatzaileek.



Ibilbide luzea eta motzak zeharkatu dituen eremuak. HITZA

## Parte hartzaileentzako gomendioak eta zerbitzuak

Ibilbide luzea 07:00tan hasiko da, eta motza 08:00etan eta irteera elizaren ondotik izaten da. Irteeran txartel pertsonalizatua emango zaio parte-hartzaile bakoitzari, izen-ematearen hurrenkeraren arabera zerbakiarekin. Era mailakatu emango da irteera, hau da, gutxi gorabehera 50 parte-hartzaile abiaturik dira minutuko.

Parte-hartzaileei jarduera hau egiteko beharrezko diren elikagai eta edariak ekartzea gomendatzen zaie. Hala ere, antolatetako kideek ura eta gutxienezko hornidura jarriko dute Lapurtxulo, Etxelako Lepoa, Leitzaran eta Mugagako kontroletan. Ibilbidean dauden iturri naturalak berriz, Aitzola (14 km) eta Urepel (21 km) dira.

Amaitzean, ibilbidea egiten duten parte-hartzaileei helmugan diploma banatuko zaie, beti ere, luzea gehienez ere 10 ordu erdian (luzea) eta sei orduen buruan

(motza) egin duela ziurtatzen duen martxa-txartela erakutsiz gero. Bestela, 17:30ean, mendiko materiala zozketatuko da proba amaitu duten eta bertan aurkitzen diren parte-hartzaileen artean.

Bukaeran, partaideentzat dutxa zerbitzua jarriko du Aizkardi Mendi Taldeak.

## «Guztia prest dago»

Maddi Bengoetxea da Aizkardi Mendi Elkarteko antolatzaileetako bat eta «1000 lagunengintza inguruan ibiliko ginela aurreikusia genuen baina jada parte hartzeko izena eman dutenen kopurua ikusita eta eguraldi ona datorrela jakinda gehiago izango direla badakigu». Balarazio ona egiten dute eta «urte guztietako esperientzia badugu eta prestatuta gaudu. Guztia prest dugu» azpimarratu du.

Honelako egun bat antolatzeak lan asko eskatzen du eta «antolatze lanetan 10 lagun inguru ibiltzen gara baina egunean bertan, 100

pertsona inguru ibiliko gara, urrutiko gabe». Urteetako esperientziarekin «laguntzaileei zer egin behar duten esatea nahikoa da eta jada zer egin behar duten jakitea laguntza handia da» azaldu digu.

Izena eman dutenen artean denetik dago. «Gipuzkoarrak asko dira baina baita arabarrak, bizkaitarrak eta nafarrak ere. Bestalde, kantabriarrak, madrildarrak eta bartelonarrak izango dira» gaineratu du Bengoetxeak.

Villabonako ibilbide neurtua, Bederatzigarren Euskal Herriko Iraupen Luzeo Ibilbidearen zirkuiturako baliagarria da. «Gainera lehena da eta jendea gogoz eta hasiteko gogoz dago» argitu du. Ibilbi-

## » 42. IBILALDI NEURTUA

### Ibilaldi luzea, 42 km

- Irteera. 07:00etan.
- Desnibela. 2.250 metro.
- Iraupena. 9 ordu gutxi gorabehera.
- Ibilaldia. Villabona, Otieta (Leitzaran), Lapurtxulo, Onddo (780m), Azketa (832m), Leuneta (880m), Abadekurutz (984m), Mandoegi (1.045m), Kondizatzeko lepoa, Leitzaran, Gorosmendi, Mugaga, Urdelar (858m), Belabieta, Komizar eta Villabona.

### Ibilaldi motza, 24 km

- Irteera. 08:00etan.
- Desnibela. 1.150 metro.
- Iraupena. 5 ordu gutxi gorabehera.
- Ibilaldia. Villabona, Otieta (Leitzaran), Lapurtxulo, Astabizkar (575m), Amasola (Leitzaran), Praxku, Kanal Handia, Lastur eta Villabona.

### Ordu aldaketa

- Adi. Ordu aldaketa dela eta, mendizaleei argi ibiltzeko deia.

demotzaren kasuan, urtetik urtera jende gehiago apuntatzen dela eta «sorpresa» izaten ari dela dio. 42 kilometro asko dira baina 24 kilometroko ibilbidea egitera, prestaketa handirik gabeko jendea animatzen da.

Ibilbide neurtu hauetan izena ematea doakoa da eta hori gaur egun leku gutxiatan gertatzen da. Doan izatea «Villabonako taberna eta denden laguntzari esker izan da posible eta krisi garaia izanagatik ere oso ondo erantzun dute», eta beraitik eskerrak eman nahi izan dizkie Maddi Bengoetxeak. Bestetik «eskerrak baita, Villabona egiten laguntzen duten lagun guzti ere».



## Martxoak 28 igandea

### 18:00

## tolosako beotibar pilotalekuan

bertsolariak:

- uxuealberdi - ametsarzellus
- sustraiacolina - andoniegaña
- unaiiturriaga - ionmaia
- aitormendiluze - aitossarriegi

gai jartzailea:

amaiaagirre

Sarrerak:

aurrez 10 euro  
egunean bertan 12 euro

Salgai:

- Azpeitiko eliku zentroan
- Lasarteko jalgi tabernan
- Tolosako orbela, raku eta ikatza tabernetan
- kutxanetan



## Loiolako negoziazio prozesuaren kronika

Prozesuaren kronika zehatza egin du Imanol Murua Urika kazetariak *Loiolako hegiak* liburuan, orain arte inor gutxi ezagutzen zituen datuak argituz.

Loiolako negoziazioaren protagonista izandako Jesus Egiguren, Inigo Urkulu eta Arnaldo Otegiaren testigantzak.

# eskaintza berezia

## BERRIaren eskutik

15€

Egin eskaera eta etxean jasoko duzu

[www.berria.info](http://www.berria.info)

[harpidetza@berria.info](mailto:harpidetza@berria.info)

943-30 43 45

Aukera ezazu, BIZI EUSKARAZ

## berria

E **Elkarrizketa****RAFA RUEDA** ▶ Musikaria

# «Zuzenekoak orain askoz indartsuagoak dira»

**Tolosa** ▶ Rafa Ruedak kontzertua eskainiko du bihar Bonberenean. Azken diskoko kantak eta zenbait abesti berri entzuteko aukera egongo da.

**REBEKA CALVO**

Rafa Rueda musikaria (Mungia, Bizkaia, 1972) Bonberenean izango da bihar. **JLT** taldea atzean utzita ibilbide oparora ari da egiten bakarka eta hirugarren diskoa aurkeztuko du biharko zuzenekoan. Orainxe Txuma Murugarren grabatzen ari den diskoan ari da lanean musikari bezala, baina zuzenekoak ez ditu inoiz atzean uzten, horiek baitira «kantei bizia ematen diotenak».

**2008ko urrian atera zenuen zure bakarkako hirugarren lana, 'Zuhaitz okerretan gora noa' izeneko, eta honezkerok kontzertu asko eskaini dituzu. Zein balorazio egiten duzu?**

Zuzenekoan kantuek beste bizitasun bat hartzen dute eta geroz eta gehiago jo, orduan eta bizitasun gehiago hartzen dute. Orain esan-gongo nuke zuzenekoak askoz indartsuagoak, biziagoak, direla. Kantak segurtasun gehiagorekin jotzen ditugu eta horrek ere ematen dio beste puntu bat kantari berari eta baita emanaldiari ere.

**Kantek bizi propioa hartu dute, beraz.**

Horrela da bai. Normala da. Jotzen joan ahala musikari bakoitzak bere nortasuna ematen dio kantari. Eta denbora bat pasata pixkanaka aldatzen doaz kantak, ia zu konturatu barik. Zuzenekoetan kantein hori gertatzen da. Diskoa atera eta seguitan eskainitako zuzeneko batzuk grabatu genituen eta baita bukaerako batzuk ere eta aldean nabarmena da. Igartzen da zuzenekoetan aritzeko zenbat eta denbora gehiago izan orduan eta gorputz handiago hartzen dutela kantak.

**Tolosan kanta berrien bat entzuteko aukera izango al duzu?**

Emanaldiaren zatirik handiena, azkeneko diskoarekin egiten ari naizen zuzenekoetan oinarrituko izango da. Baina kanta berrien bat ere tartekatuko dut.

**Barkakako lanekin hasi zenuen bidea jarraitzen al dute kanta berriek?**

Kantak asko aldatzen dira sorkuntza momentutik taula gainera plazaratzen dituzun arte, baina mo-

mentuz kantak bakarrik egin ditut, eta beraz, pentsatzen dut ildo bera jarraitzen dutela. Baina esan bezala, hori taula gainean igo eta jotzen ditudan arte ez dut horren argi ikusiko... Melodikoak dira, hori bai.

**Zein musikariekin etorriko zara Tolosara?**

Joseba Irazoki gitarran ariko da, Jaime Nieto baxuan eta Nacho Beltran baterian. Joseba Irazoki nahiko ezaguna da; Nacho Athom Runba taldearekin dabil eta Txuma Murugarrenekin zuzenekoetan; eta Jaime ere inguruko pertsona bat da.

**Musikari onak eta garrantzitsua gogo dena, gertukoak eta konfiantzakoa, beraz.**

Oso garrantzitsua da taula gainean zaudenean ondoan dituzun pertsonekin behintzat, harreman ona izatea. Azken batean, kimika kontu bat ere bada, denok norabide

**«Ez dut alderdi komertzialean pentsatzen, merkatua hankaz gora dago»**

**«Diskoko kantak joko ditut gehienbat, baina abesti berrien bat ere eskainiko dut»**

bera jarraitu behar dugu eta jendartearen giro ona badago, laguntasun hori igarri egiten da eta dena asko errazten du.

**Autoekoizpenaren bidea jarraituko al duzu kaleratzen duzun hurrengo lanean?**

Ez dut alderdi komertzialean gehiegi pentsatu. Baina egia da diskoen merkatua gaur egun gutzit hankaz gora dagoela eta beraz, ez dakit diskoetxeen dinamika nola egongo den nik disko berria ateratzen dudenerako. Behar bada, autoekoizpena edo interneta izan daiteke bidea, edo behar bada, formatu berria azalduko da musika gizarteratze... Baina egia da ere, gaur egun diskoetxe baten babesa izateak ere ez duela ezer ziurta-



MONIKA DEL VALLE-ARGAZKI PRESS

zten. Badaude talde batzuk autoekoizpenarekin ondo joan direnak, beste batzuk berriz diskoetxeen babesa izan arren, porrot egin dute. Beraz, ikusiko dugu.

**Musika zabaltzeko modu berriak ez dituzu baztertzeko behintzat.**

Musika zabaltzeko modu berriak agertzen dira eta ez nago itxita. Ikusi egin beharko da bakoitzak zer eskaintzen duen. Musika zabaltzeko modu berriak daude eta horrekin bat egin beharko dugula uste dut.

**Artifizioak utzi omen dituzu barkakako hirugarren lan honetan, zu ere kantak bezala biluzten ari zara?**

Aurreko bi diskoetan estudioa sartu nintzenerako kantak taldearekin landuta nituen, baina hirugarren disko honetan kanta soilarekin joan nintzen estudioa, aurretik garatu gabe, nolabait esateko. Honek kantak biluzten ditu eta gordinago aurkezten dituzu jendaurraren. Niretzako gauzak egiazkoak dira horrela, eta kanta horrek eman dezakeena ere egiazkoagoa da. Joseba (Irazoki) kenduta, musikariak kanpokoak ziren eta eurekin ere ez neukan harreman handirik, beraz, estudioan sartutakoa momentuan sortutako energia izan zen. Energia askoko emaitza izan da, nire ustez. Ezjakintasun horrek ere eman dio beste txispa bat lanari.

**Kontzertuez gain, zertan ari zara orain?**

Egia esan hurrengo urratsetan ari naiz pentsatzen. Gauza desberdinak egiten ditut, baina batez ere

aurrera begira nago, disko hau harrotasunez begiratzen dudana birtatean.

**Baina bestelako proiektuak ere badituzu...**

Orainxe Txuma Murugarren diskoan parte hartuko dut musikari moduan, Mikelekin (Urdangarin) ere aritzen naiz zuzenean, eta

**«Arropen diseinua, argazkigintza eta musika uztartzen dituen proiektuan ariko naiz»**

**«Baliteke uda ostean JLTrekin kontzerturen bat edo zerbait berezia behintzat egitea»**

urte bukaerarako nahiko istorio bitxia ere badaukat. Ezin dut gehiegi aurreratu baina arropen diseinua, argazkigintza eta musika uztartzen dituen proiektua da. Zerbait berezia izango da. Honez gain, antzerkirako musika egiten dut, enkargu bidezko lanak... Musikarekin harremana duen edozertan lana egitean pozik nago.

**Letrak zuk idazten dituzu beti eta nahiko poetiko jartzen zara...**

Bai, baina laguntza izaten dut: orain arte Gotzon Barandiaranek, Kirren Uribe, Edorta Jimenezek eta Unai Iturragak lagundu izan didate. Normalean saiatzen naiz idazten, baina trabatzen baina lagunengana jotzen dut, ondo ezagutzen nauten lagunengana, noski, horrela lortzen baitugu nik

azaldu nahi dudana ondo azaltzea. Testua zure egitea errazagoa da horrela.

**Zure bakarkako ibilbideak ez dauka, printzipioz, zerikusirik JLTren garaiarekin, nostalgiarik sentitzen al duzu?**

Harreman handia daukagu taldekideekin eta hori da faltan gehien botatzen dudana; taldean ibiltzearen kontu hori. Orain bakarka nabil, musikariekin bai, baina ez da taldeko kontu bera. Talde baten babesa genuen, taula gainean, lokalean... Azken batean, nahiz eta musika desberdina izan, taula gaineko sentimendu hori, jarrera, ez da aldatzen, berdina da, emozioa da. Intentsitatea bera da. Uda ostean zerbait berezia egiteko aukera ere hor dago. Nere asmoa ez da JLTrekin berriz hastea, baina zerbait egiteko eskatu digute, kontzerturen bat edo zerbait berezia behintzat, eta oraindik airean badago ere, baliteke zerbait berezia egitea.

## » BONBERENEAKO KONTZERTUAK

■ **Bihar, hilak 26.** Rafa Rueda 22:30etik aurrera.

■ **Etzi, hilak 27, larunbata.** Gas Drummers eta Same Old izango dira Bonberenean 22:30etik aurrera. Gas Drummers andaluziarrek beraien diska berria aurkeztuko dute, Same Old gasteiztarrak bezala. Azken hauek diskoa Bonberenean grabatu zuten Karlos Osinaga Txapekin.

**E Elkarrizketa**

**MIGEL MARI ELOSEGI 'LUZE'** Bertsolaria

**Kultura** » Hilaren 20ean amaitu zen Nafarroako Bertsolari Txapelketa, honek emandakoaz eta leitzarrek egindako lanaz mintzatu da Migel Mari Elosegi.

**ESTI EZEIZA**

Joan den larunbatean amaitu zen Nafarroako Bertsolari Txapelketa. Lesakan jokaturako finalean, Julio Soto *dotore* jantzitako gaztea izan zen garaile. Eskualdeko hiru bertsolarik hartu dute parte aurtengoa, Migel Mari Elosegi *Luze*-k, Diego Riañok eta Jose Luis Barberia *Zili*-k. Lehena, beteranoena izan zen urrutien iritsi zena, baina, hala ere, finaleko ateetan geratu zen.

**Nafarroako bertsolaritzaren plaza handiena da Txapelketa. Nola ikusi duzu aurtengoa?**

Aurtengo txapelketan mailak gora egin duela esango nuke. Saio hobekak eta txarragoak izan dira, baina orokorrean onak, eta finala oso ona izan da. 27 bertsolari aurkeztu ziren, eta hor ere gorakada somatu zen. Duela urte gutxi Bortziri-Baztan aldetik zetozen gehienak, eta orain, Larraun, Araitz, Auritz, Mallerreka, Iruñaldera eta abar zabaldu da partaidetza. Esan bezala, finala polita izan zen, eta Sotok ez ezik, denek utzi zuten zerbait baino gehiago. Estangak saio zoragarria egin zuen, fresko-freskoa, eta beste guztiak ere, Arkaitzek, Estitxuk, Aranok, Julenek, Lazkozek eta Terrerosek ere zaleek gozatzeko saioa egin zuten. Azken urteetako final onena izan dela esanen nuke.

**Gustura geratu al zara zuk egin-dako lanarekin?**

Ez, nik ez nuen nirea eman eta ez nintzen gustura gelditu. Mailak gora egin du, hori dela eta, aurrera egitea zailagoa da. Hala ere, saio txukunak egin izan banitu, aurrera egin edo ez, gustura geldituko nintzen. Dena dela, esan bezala, ez zen hala izan. Hala ere, Txapelketa hori izaten da askotan eta aurkezten denak badakit arrisku hori dagoela.



HITZA

# «Gero eta garestiago dago finala, eta hori seinale ona da»

**Aurten ez duzu lortu finalera iristea. Zerk failatu du?**

Finala gero eta garestiago dago. Seinale ona da hori. Final laurdena ongi xamar joan zen, baina finalerdietan bigarren bertsolan ostropo-zo galanta egin nuen eta gero ez nion buelta eman. Hori da egin behar ez dena. Huts bat egitea normalean da gure artean, eta egin behar dena zera da, hori ahaztu eta hurrengo bertsolan ez pentsatu, egin-dako hanka-sartzean. Nik bigarre-na egin nuen, eta saioak alde egin zidan batere luzitu gabe.

**Hurrengo txapelketari begira, zer duzu hobetzeko edo aldatzeko?**

Hasteko, ez dakigu hurrengo txapelketa noiz edo nola joanen den. Litekeena da bi urtetik jokatzeko hastea, edota beste modu batera izatea, taldeka adibidez. Orain eginen den balorazioan erabakiko da noiz eta nola izanen den hurrengo txapelketa. Bestalde, orain ez dakit neroni aurkeztuko naizen edo ez.

Beste hamaika saltsetan sartuta nabil eta aurkeztokotan bertsolari denbora pixka bat eskaini beharko nioke. Denborak esanen du hori.

**Zurekin batera, beste bi leitzarrek ere hartu dute parte txapelketan. Nola ikusi dituzu hauek?**

Biek saio polita egin zuten Agoitzen. Saio bizia izan zen, eta ostropozorik gabea. Behar bada, bertsolariek betetzea eta ideietan sakontzea faltatu zitzaigun baina bestela, ongi joan zen. *Zilik* aurreneko saioa zuten Txapelketan eta hori kontutan hartuta saio ona egin zuen oso. Guretzat gauza ederra izan da Leitzatik hirugarren bertsolari bat aurkezte, eta bertsolariek beste zortzi bat lagun ari dira trebatzen. Okerrik ez bada, hortik ere atera beharko luke bakarren batek aurrera.

**Julio Sotok eraman du aurten txapela. Esperatzekoa al zen?**

Julio bertsolari bikaina da eta Eskual Herriko Txapelketan finalera

arrimatu zen. Pentsatzekoa zen Nafarroako Txapelketan txapeletik ez zela oso urruti ibiliko. Meretzita irabazi zuen, batez ere egin zuen kartzelako lanarengatik. Ofiziotan ez dut uste sobera nabarmendu zenik. Dena dela, berea eman zuen eta ez zuen hutsik egin.

**Nola deskribatuko zenuke Gorritiko bertsolari gaztea?**

Julio azkarra da. Erne egoten da eta ez zaio deus ere eskapatzen. Bertsolariek ederki josten ditu, goitik behera kontrola ditzake, eta bukeran beti du arrazoiz txukun bat. Umorerako dohai ederrak ditu eta jendea nahi duen hori emateko gaitasuna. Izaeraz, mutiko erna, eta adar-jotzailea da, alukerietan ederki moldatzen den horietakoa.

**Bildu zen aurtengo txapelketaren leloa. Izan duen jarraipena ikusita. Ereindakotik, nahikoa fruitu bildu dela esango al zenuke?**

Jende asko bildu da saioetan, gazteak eta helduak, Nafarroako es-

kualde batekoak eta besteokoak. Alde horretatik, ederki. Nafarroan Lesaka aldean Manolo Arozena eta Baztan aldean Bittor Elizagoien izan dira duela urte batzuk ere in zutenak, eta hantxetik atera ziren Etxabe, Estitxu, Silveira, Olaetxea, eta abarrek. Gaur egun ordea, beste leku askotan ere in da bertsolariek bidez, eta horrela uler daiteke gaur Auritz, Zubietza, Etxarri, Bera, Iruñea, Leitzeta eta abarrek bertsolariaz zitea. Zabaldu egin da bertsolareren eremua, eta horrek esan nahi du gauzak ongi egin direla.

**«Nik ez nuen nirea eman eta ez nintzen gustura gelditu; bigarren saioak alde egin zidan»**

**«Nafarroan zabaldu egin da bertsolareren eremua, eta horrek esan nahi du gauzak ongi egin direla»**

**Txapelketak eman duena ikusita, Nafarroan bertsolaritza sasoi onean dagoela esan al daiteke?**

Bai, bai, sasoi onean dago. Gorakada, zabalduen ari da, eta gazte mordoa dator. Tafalla, Agoitz eta beste eskualde askotara iritsi da bertsolaria, eta hori lorpen handia da Nafarroan. Erdaldun jendea iritsi zaio zerbait ospatu denaren berri. Ni Iruñean ari naiz lanean eta lankide batzuk galdute didate ea zer den bertsolareren kontu hori, Nafarroako josten antzeko zerbait ote den, alegia, oihartzuna izan du txapelketak.

**Orain zer egin behar da, Txapelketako saioetara joan den jende hori, urtean zehar eginen diren erabileretarako?**

Ezer baino lehen aukera eman behar zaio eta han eta hemen saio batzuk antolatu beharko dira, eta saioak ongi zaindu, alegia, bertsolariekin asmatu, jendeak eroso entzuteko modua egin, eta gai politikak jarri. Saioak zainduz gero jendeak ongi erantzuten du, gozatu egiten du, eta hori da hurrengo batean bertsolareren antolatze gaiztarik onena. Bertsolareren lanean jarraitzea ere garrantzitsua da oso, bertsolari eta zaleen harrobi bikainak dira eta.

**H Hilberriak**

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN agertuko da

hilberriak urteurrenak eskertzak

**HITZak Gipuzkoan 120.000 irakurle**

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen ditugu  
tolosaldean@tolosaldeko HITZA.info / Tel.: 943-65 56 95

**JOSE LUIS UMEREZ BERISTAIN**

Atzo hil zen, 54 urte zituela, Elizakoak eta Aita Santuaren Bedeinkapena hartu ondoren. -Golanbego-



Emaztea: Mariangeles Ibañeta; seme-alabak: Nekane eta Ander eta Yvette; gurasoak: Jose Luis eta Maria Luisa; ezkon-gurasoak: Esteban (?) eta Dolores; anai-arrebak: Sara eta Jose Felix eta Irene eta Ildarfonso; koinatu-koinatak: Ibañeta eta Sabino, Roxarito eta Juanito, Axun eta Jose Mari, Arantxa eta Jose Inazio, Jesus eta Uxua, Lurdes eta Iñaki, Iñabek eta gainarako ahaideak. Haren animaren alde otoi bat eskatzen dizute eta arren etor zaitzela GAUR OSTEGUNA, arratsaldeko SEIRETAN, AZKOITIKO parroki elizan, GORPUA BERTAN dela egingo den hiletara. Aldez aurretik, mila esker.

**AZKOITIA**  
2010eko martxoaren 25a

Hilbidetza: Donostia kalea 5, 3 eskutina.  
OHARRA: Gorpu Azkoitiko belatxan egongo da, 10:00etatik hiletara ordua arte.



16°  
9°

GOIZA	EURIA
ARRATS.	EURIA
BEROENA	16°
HOTZENA	7°

**Argitaratzailea:** Tolosa Herria Hedabideak S.L.  
**Lege Gordailua:** SS-0398-03  
**Zuzendaria:** Rebeka Calvo  
**Egoitza nagusia:** Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.  
**Telefona:** 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18  
**Leitza:** Herriko plaza, 1. 687 410 118  
**E-posta:** tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info.  
**Webgunea:** www.tolosaldeko-hitza.info

**Zuzendariordea:** Asier Imaz. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.  
**Publizitatea:** 661 678 818 tolosaldean\_public@tolosaldeko-hitza.info.  
**Tolosa:** 687 410 082-687 410 032. tolosa@tolosaldeko-hitza.info.  
**Villabona:** 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko-hitza.info.  
**Anoeta:** 687 410 022. anoeta@tolosaldeko-hitza.info.  
**Ibarraldea:** 687 410 118. ibarraldea@tolosaldeko-hitza.info.  
**Alegialdea:** 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko-hitza.info.  
**Leitza:** 687 410 118. leitza@tolosaldeko-hitza.info.

**Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:**

BERTAKO  
HEDABIDEAK



eta Tolosaldeko eta  
Leitzaaldeko beste 77 eragile

**Hitza-k Bai Euskarari**



**'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak:** Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Amezketa, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Oresa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako  
Foru  
Aldundia

**Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua** (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

## A Agenda

### Ipuin kontaketa

■ **Anoeta.** Idoia Sanchezen ipuin kontaketa saioa liburutegian 18:00etan. Antolatzailea: Gal-tzaundi Euskara Taldea.

### Deialdia

■ **Tolosa.** AHT Gelditu! Elkarlanaren laguntzarekin Ikaztegieta Udalak martxa antolatuta du gaur. 19:00etan irtengo dira udaletxe aurretik eta Ugana auzora joango dira, AHTren proiektuaren lanak ikustera.

### Hitzaldiak

■ **Tolosa.** Umorea eta barrea eguneroko bizitzan izeneko hitzaldia Kultur Etxean 20:00etan. Antolatzailea: La Risa Inteligente elkarte.

■ **Tolosa.** Joseph Maria Palau kazetari eta unibertsitate irakaslea bere bidaiez ariko da Topic-en 20:00etan, Amalur bidaia, natur eta antropologia jardunaldietan. Antolatzailea: CIT-TEE.

■ **Villabona.** Palestinako okupazioari buruzko hitzaldia gaztetxean 19:00etan. Diapositiba emandali batez lagundurik izango da. Antolatzailea: Tolosaldeko Askapena.

### Zinema

■ **Tolosa.** Garbo: el espia filma jatorrizko bertsioan Leidor aretoan 19:15ean eta 21:45ean, zine-forumean. Antolatzailea: Tolosako Zine-Kluba.

### Batzarra

■ **Amezketeta.** Udaltzara 20:30ean: 2010eko E-Planerako proiektuaren onarpena; udal aurrekontuak eta udaletxeko langileen plantila organiko onartzea; Larrailgo eskola txikiari buruzkoa eta Igelto udalerrizatearen inguruko mozioak; Pello-enea etxeari buruz egindako segregazio baimen

eskaera eta batzordeei buruzko informazioa eskainiko da.

### » GUARDIAKO FARMAZIAK

■ **Tolosa.** Olarreaga J. Korreokalea, 2. 943 67 01 28.  
■ **Lekunberri.** Mendia M. I. Aralar kalea, 25. 112.

### » IRRATIA

#### Txolarre Irratia (FM 107.5 eta 101.2)

**11:00.** Tolosaldeko Ahotsa: Albistegia. **12:00.** Tolosaldeko Ahotsa: Magazina (Herri Kirolak + beste). **13:00.** Tolosaldeko Ahotsa: Lehiaketa eta disko eskainiak. **13:30.** Info 7: Egurdiko albistegi nagusia. **14:00.** Tolosaldeko Ahotsa: Albistegia. **16:00.** Arroza: Irauli uhinak (Gaztesarea). **17:00.** Kabitik Plazara. **18:00.** Tolosaldeko Ahotsa: Magazina (errepikapena). **19:00.** Tolosaldeko Ahotsa: Albistegia (errepikapena). **20:00.** Info 7: Iluntzeko albistegi nagusia. **21:00.** Mintzatzen.

### » TELEBISTA

#### 28 Kanala

**08:30.** Zahar berri. **09:00.** Muka. **09:30.** Tolosaldean Gaur. **10:00.** Erlo jazz. **10:30.** On ein! **11:00.** Planik bai. **11:30.** Tolosaldean Gaur. **12:00.** Kultur zulo. **12:30.** Wazemank. **13:15.** Klipak. **13:30.** Tolosaldean Gaur. **14:00.** Erlo jazz. **14:30.** On ein! **15:00.** Planik bai. **15:30.** Tolosaldean Gaur. **16:00.** Kultur zulo. **16:30.** Wazemank. **17:15.** Klipak. **17:30.** Tolosaldean Gaur. **18:00.** Gipuzkoa kultura. **18:30.** EH Lau Haizetara. **19:00.** Erloklip. **19:30.** Tolosaldean Gaur. **20:00.** Eskuokin. (\* 16:30etik 20:00etarako blokea lau ordu errepikatuko dute)

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanetan eta iritzien erantzukizunik.



## Kontsumo taldea abiarazten

**TOLOSA** Jende asko gerturatu zen atzo Zerkausira informazio bila. Biolur elkarteak, Tolomendik, EHNEK eta Lurgintzak bultzatuta Tolosaldean kontsumo taldea eratzeke hitzaldia izan zen eta erantzuna ikusita,

badirudi taldea osatu bidean dela. Kontsumo taldearen helburua baseritarren eta kontsumitzaileen arteko harreman zuzena bultzatzea da eta kontsumitzaileen konpromisoa ere bilatzen du. A. IMAZ

## A Agurrak

agurrak

urtebetetzeak - urrezko ezteiak - ezkontzak jaioberriak - jaunartzeak...

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera. Mila esker.

- HITZAren egoitza Tolosan: Araba etorbidea, 5 behea
- HITZAren egoitza Leitza: Udaletxeko bulegoa

agurrak

bertako egunkaria  
egin zaitez harpidedun!

902-82 02 01

(Astegunetan 08:30-20:30 /Larunbatetan: 09:00-13:00)

www.tolosaldeko-hitza.info

eraman/bidali izen-emate orria:  
Araba etorbidea 5 behea • 20400 Tolosa  
Herriko plaza 1 • 31180 Leitza

beharrezkoa da datu guztiak betetzea

• Izen-abizenak:

• N A :

• Lanbidea:

• Jaioteguna:

• Helbidea:

• Herria:

• P.K.:

• Tel.:

• Posta elektronikoa:

• Kontu zenbakia:

\_\_\_\_\_